

IGERILEKU ESTALIEN IREKIERA

Joan den abenduaren 11ko uholdeak eragindako kalteak handiak izan zirenez, eta horiek guztiak zenbatzeke daudenez, zaila da berriro irekitzeko data ezartzea. Hala ere, egiten ari garen aurreikuspenak martxoaren erdialdean kokatzen gaitu.

Itxiera-aldi hori aprobetxatuko da irail-urrirako aurreikusia zen eta 4 asteko denbora behar zuen, 25 m-ko ontziko kare-esnea berritzeko obrari ekiteko.

ATARRABIAKO UDALAREKIN LANKIDETZA HITZARMENA

Uharteko Udalak Atarrabiako igerileku estaliak Ugarrandia kirol instalazioetako abonatuentzat (igeri librea) erabiltzeko aukera hitzartu du Atarrabiako Udalarekin, igerileku estaliak ixten diren bitartean, txosten honetan azaltzen diren baldintzetan.

Atarrabiako igerilekuak erabiltzen diren bitartean, hitzartutako udalek edozein unetan aldatu edo deuseztatu ahal izango dituzte Atarrabiako kirol-instalazioak erabiltzeko baldintzak.

ATARRABIAKO IGERILEKUAK ERABILTZEKO BALDINTZAK

ATARRABIAKO INSTALAZIOAK

Atarrabiak hiru ur-putzu ditu: igerileku handia (25x25), ikasteko igerilekua eta 16 urtetik gorakoentzat spa.

Une honetan, ikasteko igerilekua eta spa ez dira erabiltzen uholdeengatik, baina abenduaren 24tik aurrera martxan jarriko direla aurreikusten da.

ATARRABIAKO IGERILEKUAK ERABILTZEKO IZEN-EMATEA:

1. Atarrabiako igerileku estaliak erabili nahi dituztenek Uharteko Udal Kirol Zerbitzuaren bulegoetan eskatu beharko dute, edo posta elektronikoz, deporte@huarte.es helbidean, bertara joan nahi duten pertsonak adieraziz.
2. Eskatzeko epea: abenduaren 21ean eta 22an, 23tik aurrera erabili ahal izateko; epe horretatik kanpo, edozein unean izen-emate berriak onartuko dira, baina eskaera horiek indarrean jarriko dira izen-ematea egin eta hurrengo astelehenean.

SARBIDEA ETA ARAUDIA

1. Ugarrandia kirol-instalazioetara sartzeko txartelarekin joan beharko da identifikatzera.
2. Sarbide lekua: behin-behinean, Martiketean dagoen igerilekura sartzeko atetik sartuko da. Atarrabiako Udalak instalazioetarako sarbide nagusia, uholdeak urpean hartutakoa, martxan jartzen duenean, sarbide-puntua baloratuko da. Horren berri garaiz emango da.
3. Derrigorrezkoa da musukoa erabiltzea sarbideetan eta aldageletan.

4. Norberaren gauzak eta musukoa armairuan utziko dira nahitaez. Udalek ez dute erantzukizunik izango gal daitezkeen gauza pertsonalen gainean.
5. 8 urtetik beherakoek nahitaez beren ardura hartuko duen adinez nagusi batekin joan beharko dute.
6. Sparako sarbidea 16 urtetik gorakoentzat da.
7. Bainurako txanoa derrigorrez erabili behar da.

ATARRABIAKO IGERILEKU ESTALIEN IREKIERA ORDUTEGIA

Igerilekuak hurrengo ordutegian egonen dira zabalik:

- ✓ Astelehenetik larunbatera: 8:00-21:30
- ✓ Igande eta jaiegunetan: 8:00-13:30

Instalazioetara gutxien erabiltzen den ordutegian joatea gomendatzen da (goizez, eguerdian eta arratsaldeko azken orduetan).

IREKIERA GABONETAN

- ✓ Itxita egonen diren egunak: abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean eta 6an.
- ✓ Ordutegi murriztua izanen duten egunak (8:00-13:30): abenduaren 24an eta 31n eta urtarrilaren 5ean.

IGERIKETA ETA ACUAGYM IKASTAROAK

Uharteko Udala saiatu da udalerritik gertu dauden beste instalazio batzuekin (Atarrabia eta Olatz) igeriketa eta acuagym-ikastaroak egitea adosten, baina instalazio horietan dagoen okupazio-mailak (ikastaroak ordutegi beretsuetan ematen dira), ez du hori posible egin.

Kirol jarduerak arautzen dituen araudiak honako hau jasotzen du berariaz "Klaseak ez dira berreskuratuko eta ez dira diruz konpentsatuko gure borondatearekin zerikusirik ez duten kasu hauetan: uholdeak, grebak eta Covid dela eta sortzen diren konfinamenduengatik", baina Uharteko Udalak, igerileku estalia berriro martxan jartzen denean, igeriketa ikastaroen lehenengo txandan galdutako saioak berreskuratzea erabaki du. Beraz, igeriketa ikastaroko lehen txanda ez da urtarrilaren 31n amaituko, saio guztiak eman ondoren baizik.

Udal Kirol Zerbitzuak bigarren txanda bat egiteko aukera baloratuko du; kasu horretan, iraupena eta kuota jardueraren iraupenera egokituko lirateke.

Acuagym jarduerari dagokionez, une honetan ezin denez jakin zenbat denboraz ezingo den jarduera eman, eta jarduera bi epetan (urrian eta otsailean) ordaintzen denez, Udalak otsaileko kobrantza atzeratu eta kuota doituko du, jarduerarik gabeko aldia deskontatuta.